

# ERKETZ

Erketz dantza taldeak, gogoz heldu zion 2018.urteari. Taldearen 50. urteurrena ospatzeko aitzakiaz, urteroko ekitaldiez gain, programa berezi eta mamitsua antolatu zuen.



Urtero lez, Santa Ageda bezperan, baserriz baserri kantuan aritu ziren. Ospakizunei hasiera emateko, otsailaren amaieran, taldeak herria txunditu zuen flashmob jendetsu bat dantzatzuz, eta jarraian urteko programa aurkezteko prentsaurreko bat eman zuen.

Martxoan, Erketzek 50 urtez erabili eta bildutako jantzien erakustaldia eskaini zuen. 200 bat pertsonak jantzitako erroparen bitartez, zazpi lurralde historikoak zeharkatu zituzten festa, musika eta dantza kutsuz betetako desfile koloretsu batean. Hilabete beran, "Txarriboda" antzezlanean parte hartu zuten Erketzeko kideek.

Udaberriari jarraipena emanez, erromeri irekia antolatu zuen taldeak apirilean. Herritar eta taldeki-deen parte-hartzeak, Okendo plaza bete eta festa giroan murgildu zuen.

Ekitaldiaren hasieran, taldeko musikariek grabatutako diska eta Erketzen historia laburbiltzen duen liburuaren aurkezpen prentsaurrekoa eman zen. Diska grabatzeko taldetik pasatako dantzari eta musikarien laguntza izan zuten. "Etenik ez duen soka" liburua Maider Galardik idatzi zuen, eta proiektua aurrera eramateko 2017.urtean zehar, taldekide ohiekin makina bat bilera egin zituen.

Urteroko ekitaldiei helduz maiatzean Erketzek Andoaingo Triana elkarteak ospatzen duen erromerian parte hartu zuen. Ohi den modura, azken asteburuan, IV.Dantzari eguna eta XXX. Dantzari Txiki eguna ospatu zituzten. Larunbatean, Gasteizko Indarra dantza taldea eta Donostiako Goizaldi dantza taldeak ikusi ahal izan genituen eta igandean, berriz, Andoaingo Urki dantza taldea, Urretxuko Lurra dantza taldea, Oretako Ereintza dantza taldea, Faltzesko Makaia dantza taldea eta herriko Kukuka dantza taldeak.

Ekaina ere ekitaldiz betetako hilabetea izan zen. Korpus egunean Brijidatarren komentuan ezpata dantza dantzatzuz eman zioten hasiera hilabeteari. Andoaingo Bastero Kultur gunean ere izan zuen urteroko zita Erketz dantza taldeak.

Ekainaren 16ean eskaini zuen taldeak San Pedrotako emanaldi handia. Urte berezia izaki, Erketzek historian bidelagun izan dituen Zero Sette akordeoi orkestra, Alboka abesbatza, Suberri akordeoi taldea eta Lasarte-Oriako erraldoi elkarteak gonbidatu zituen ekitaldira. Aktuazioari hasiera berezia eman nahi izan zion taldeak Erketzen sortzaileei omenaldi hunkigarri bat eskainiz.

San Juan bezperan, Alboka eta Zero Setteren laguntzaz soka-dantza eskaini zioten herriari suaren inguruan.



Herriko jaietan, Erketz izan zen talde omendua, eta beraz, euren eman zioten jaiari hasiera. Goizean, taldeko txikiak bota zuten txupina, eta arratsaldean helduen esku geratu zen txupinazo nagusia.

San Pedro egunean, urteroko zitara faltatu gabe, herri-meza agurra dantzatu eta arkuak jarri zituzten, herriari bere esker ona erakutsiz. Ia aldatzeko denborarik gabe, Manuel Lekuona Kultur Etxean herriaren omenaldi hunkigarria jaso zuten esker onez. Bertan Erketzeko hainbat belaunaldi bildu ziren beraien bizipenak kontatuz. Jaiak oso bereziak izan ziren taldearentzako.

Uda aurrera joan ahala, Santa Ana eguna ere heldu zen eta han izan ziren Erketzeko dantzari eta musikariak goizeko herri-meza eta Santa Ana Karaban agurra dantzatzeko. Afalostean, parodiaren amaieran, Sorgin Dantza dantzatu zuten.

Urte berezi honen azken ospakizun handia heltzear zela, Erketzetik pasatako dantzari eta musikarien belaunaldi guztiak bildu ziren emanaldirako ensaioetan jo eta su lanean. Urriaren 20a heldu zen Erketz osatzen

duen familia handiak herri osoa aho-bete hartzeko utzi zuen. Lehenik, herriko kaleak doinu eta kolorez jantzi zituzten desfile amaigabe batean, jarraian, bi orduko emanaldi arin eta ikusgarria eskainiz.

Urriaren 21ean, joandakoak gogoan hartzeko meza ospatu zen, eta jarraian Mitxelingo frontoian 180 lagun inguru bildu ziren bazkaltzen eta urtea hobekien dakiten bezala amaitzeko; lagun arteko dantzaldi amaigabe batean.

Urtea amaitzear zela Euskaraldiaren hasiera jaialdian parte hartu zuten herriko beste kultur taldeekin batera.

Ezin ahaztu abenduan estreinatutako DANTZA pelikula arrakastatsuan Erketzeko taldekideek izan zuten parte-hartze xumea. Dantzarientzako esperientzia aberasgarria, inondik inora ere.



**Nos  
ha quedado un  
sabor inmejorable  
de la respuesta  
participativa del pueblo  
de Lasarte-Oria en todos  
y cada uno de los festejos  
organizados conmemorativos  
de los 50 años de existencia  
de ERKETZ  
¡MUCHAS GRACIAS!**

